Arimaren sakon-sakonean

José Rodríguez Arenas

1970ean Gipuzkoan adoptatua izateko
utzi zuten ume baten aita biologikoa

Bi urte joan dira jada. 2024ko urtarrilaren 28a zen, igandea. Hegazti-feria batetik bueltatu berria nintzen, eta berandu samar zen. Posta elektronikoa zabaldu, eta Usoaren eskutitza aurkitu nuen hantxe: "nire alaba galduaren" gutun bat.

Inarrosaldi erabatekoa izan zen hasieran: kolpe bat arimaren sakon-sakonean. Sentimendu asko piztu zitzaizkidan, eta, aldi berean, hainbeste urtez irrikatua nuen leiho hura ireki zitzaidan azkenean.

Sekula ez nuen esperantza guztiz galdu, baina, egia esan, ordurako zera besterik ez nuen espero: nire semeak –mutila zela uste bainuen orduan–, patuaren kolperen batez edo bere ekimenez, modua izango zuela, nolabait ere, nirekin harremanetan jartzeko.

Aitortu behar dut ezjakina nintzela, baldarra, eta inondik ere ez nekiela Ume Alaiaren moduko elkarterik eta bestelako organismo publikorik bazegoenik beren jatorriaren bila zebiltzan adoptatuei laguntzeko.

Gau hartan, lurrikara emozional batek astindu zizkidan arima eta bizitza, eta aitortu behar dut eragin sakona utzi didala lurrikara horrek. Gau hartan bertan jarri nintzen harremanetan Usoarekin. Haren ahotsa entzute hutsak zirraratu egiten ninduen, baina, era berean, baita baretu ere; hainbesteraino, non, bi urte joan diren honetan, gutxienez astean behin entzun behar izaten baitut haren ahotsa. Egunero ere entzungo nuke, baina ez dut astuna izan nahi.

Zauria

Aspaldi-aspalditik izan dut premia gorria duela hainbeste urtetik isilpean arrastaka daramadan zauria sendatzeko, partez bada ere.

Orain, zerbait berria sortu besterik ez dut nahi, denbora galdua berreskuratzerik ez dago eta. Irrikaz nago harekin egoteko, hura besarkatzeko eta haren ahotsa entzuteko.

Antzeko egoeran dauden aita eta ama guztiak animatzen ditut besoak zabaltzera, beren burua bete-betean seme-alabei ematera, eta galtzen utzi genuen bero hura ahal den heinean berreskuratzera.

Ez dut uste gutako inork uka dezakeenik zauri ikaragarri bat daukagula, eta, neurri batean behintzat sendatuko bada, gure seme-alabei maitasun guztia eman besterik ezin dugula egin.


José Rodríguez Arenas

Ezin dugu espero izan egunen batean "aita" edo "ama" esango digutenik, baina agian espero dezakegu egunen batean ikusiko dutela nolako ahalegina egiten ari garen sekula abandonatu behar ez genuen hura berreskuratzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiari, Lotune-ri eta Ume Alaia elkarteari eskerrak baino ezin dizkiet eman. Zeharo eta betiko eskertuta egongo natzaie azkenean batu gaituen bide honetara nire alaba ekartzeagatik.